

Azken hilabeteetan, Pixkanaka Kaskariko BGAE taldea HAZIAren egungo egoeraren inguruan lanean aritu gara. Geure buruari galderak egin dizkiogu eta eztabaidatu egin dugu, eta ikuspegi desberdinak izan baditza-kegu ere, gai batean adostasuna argia da: BGAE baten funtzio nagusia erretiroa osatuko duen kapitala sortzea da, ekarpenak eginez eta inbertsioak kudeatuz.

Baina hori modu egokian egiten ari al gara? Gure hausnarketa eta plangintzen laburpen bat partekatu nahi dugu zurekin.


Adinaren arazoa eta inbertsioen ortzimuga

3.000 pertsonatik gorako kolektibo batean hogeita hamar urte ere ez dituzten bazkideak eta 80 urtetik gorakoak ditugunean, oso zaila da denak asebeteko dituen inbertsio-plan-teamendu bat egitea.

Askok inbertsioaren banaketa beraden inbertsio-horizontera ez dela egokitzen sentitzen dute.

Adinaren eta profilaren arteko korrelazio perfektuan sinesten ez dugun arren, deigarria da erretirorako 30 urte geratzen zaizkien pertsonen eta jada erretiratuta daudenek inbertsio-egitura bera izatea.

PKn uste dugu hainbat irtenbide ezar daitezkeela, eta hainbat aukerari buruz eztabaidatu dugu, beren alde on eta txarrekin.



Errenta finkoa	Errenta aldakorra	Inbertsio alternatiboa
%68	%25	%7

Nola konpondu daiteke?


Egungo plana mantentzea (HAZIA Klasikoa) eta EArekiko esposizio handiagoko profila duen plan berri bat sortzea, jardunean dauden langileen ekarpenak egiteko.



Hainbat plan sortzea (adibidez: 3) hainbat arrisku-profilekin (kontserbadorea, moderatua, arriskutsua), eta bazkide bakoitzak bere eskubide guztiak non nahi dituen aukeratu ahal izatea.



Inbertsio-profilen muturretan (kontserbadorea eta arriskutsua) kokatutako erreferentziatzko bi plan sortzea, bazkide bakoitzak aukera dezan bere inbertsioaren zer ehuneko bideratu nahi duen horietako bakoitzera.



Bizitza zikloa

BGAEEi buruzko 5/2012 Legeak eta haren erregelamendu-garapenak (203/2017 Dekretua, urriaren 27-koa) planteatzen dute 3 urtean behin eztabaidatu behar dela HAZIA Bizi Zikloaren estrategia bat hartzea edo ez.

Erregelamenduak planteatzen du estrategia hori hartzea, gutxienez hiru eta gehienez bost aurreikuspen-plan eskainiz bazkideei, arrisku eta errendimendu-konbinazio desberdinekin.

Plan horiek lehenetsitako plantzat hartuko dira, hau da, **BGAE batean sartzen den bazkide bati automatikoki esleitzen zaizkion planak, aukera horri buruzko informazioa eman ondoren, berriaz gizarte-aurreikuspeneko beste plan bat aukeratzen ez badu.**

PKn aukera ideala aho batez iruditzen ez bazaigu ere, irtenbide hobe batera eramango gaituen edo gutxienez adostasun zabal batera eramango gaituen eztabaida bat hasteko abiapuntua izan daitekeela uste dugu.

(1) INBERTSIOAK

Malgutasuna, kostua eta masa kritikoa

Inbertsio-profil desberdinak ezartzeak alboko ondorio batzuk ekar ditzazke, eta horiei buruz eztabaidatu eta erabaki bat hartu beharko da.

Zenbat denboran behin izango litzateke arrazoizkoa gure inbertsioa nola banatzen den erabaki ahal izatea? Badirudi urtean behin zentzuzkoa izan litekeela gu ez erotzeko.

Zein da gure kostuarekiko sentsibilitatea? Gaur egun, HAZIAk %0,25eko gehieneko muga du araututa, eta legearen arabera BGAE bakoitzeko muga, inbertsio motaren arabera, %1,30eraino irits daiteke. Inbertsio-aukera gehiago izateagatik, onargarria iruditzen al zai- gu kostua handitzea?

Sor daitekeen beste galdera bat da zorro desberdinak ezarriz gero, **zorroren batek dibertsifikazio eta inbertsio-estrategia egokia gauzatu ahal izateko masa kritiko nahikoa ez lortzea ekar lezakeela.**

Kontuan hartu beharreko gaia bada ere, eta nahiz eta masa kritikorik ez egon profil horretan bazkideen interesik ez dagoelako, gaur egun, ETF/funtsen bidez, inbertsio estrategia asko modu eraginkorrean erreplika daitezke.

>Gertuko erreferentziak

Inguruko enpresa handiek, hala nola Iberdrolak edo BBVak, antzeko eskemak erabiltzen dituzte inbertsioa plantillaren ezaugarrietara egokitzeke.

Baskepensione- sek honako erreferentzia hauek erabiltzen ditu bere bizi-zikloko produkturako:

>Iberdrola

■ Errenta finkoa eta altematiboak
■ Errenta aldakorra

60etik gora	20	80
55etik 60ra	26	74
50etik 55era	32	68
45etik 50era	38	62
40tik 45era	44	56
40tik behera	50	50

>baskepensiones

■ Errenta finkoa
■ Errenta aldakorra

70etik gora		100
61etik 70era	15	85
46tik 60ra	30	70
46tik behera	60	40

Iturriak: Expansión eta Baskepensiones.

Nola ezar daitezke aldaketa horiek?

Gobernu-batzordea da horrelako aldaketak aztertzeke eta planteatzeko eskumena duen organoa, gero batzarrean onartu beharko dira. Estatutu-aldaketek Eusko Jaurlaritzaren azken onarpena ere behar dute.

Ez dakigu gobernu batzordearen egungo osaketak ontzat ematen duen egitura hau. Baina ez dakigu hori aldatzeko urratsik egin dutenik, duela 2 urte bizitza zikloaren estrategia ez onartzetik haratago.

Edozein aldaketa egiteko, adostasun zabala behar da, baina plantillaren egungo egiturarekin ezin da arazoa saihesten jarraitu. Eztabaidarako eta erabakiak hartzeko unea dela uste dugu.

Eta zuk, zer deritzozu?

hurrengo gaia (2) BALIOEZINTASUNEN ESTALDURA

HAZIA bere funtzioa betetzen ari al da?

- (1) INBERTSIOAK.
- (2) BALIOEZINTASUNEN ESTALDURA.
- (3) EKARPENAK, MOBILIZAZIOAK ETA ERRESKATEAK.